



Libe Aranburu, Martxelo Rubio, Joxemari Carrere, Ugaitz Alegria, Mañu Elizondo eta Gabriel Ocina aktoreek taularatzen dute *Su txikian*.

## Ur handitan

HAINBAT ESTREINALDI pilatu dira denbora laburrean antzerki zalearen agendan: *Soinujolearen semea* ekoizpen handiko erronka izan da, narrazio lan bat abiapuntu duena; *Publikoari gorroto* obrak teatroa bera izan du hizpide estetika jostagarri bezain bortitzean, aspaldiko partez euskal idazle batek paperean sortutako teatro-lan bat taularatuta nolabaiteko justizia poetikoa eginez; Ttak teatroaren *Ta oain ze?* lanak aurrekontu txikiagoarekin era guztietako zirkuituetan kalitatezko lanak egin daitezkeela ekarri digu gogora, aktore lanetik sortutako testu batekin; *Hitzak*-ek genero bortizkeriaren gaia ekarri digu berriki hizpidera, molde sinboliko eta poetikoan; bestelakoa da, berriz, *Su txikian* lanaren kasua, zeinean hainbat testu izan dituzten abiapuntu, saiakeraren arlokoak oraingo honetan.

Beraz, ur handitan dabilkigu euskal teatroa azkenaldian, zentzu onean. Arriskatu beharra dagoelako. Eskaintza anitzak sor dezakeelako soilik ikuslego kriteriodun bat. Aipatutako lanek teatro mota ezberdinak ekartzen dituzte gogora, eta hori da agian euskal zalegoaren parte batek sarritan pentsatu eta gutxiegitan adierazi duena: eus-

karaz teatro mota ezberdinak ikus-teko aukeraren beharra. Zentzu horretan proposamen berri bat dakarkigu Glu-Gluk ekoiztutako *Su txikian* lanak ere, beste estilo batera gerturatuz zeharo, teatro dokumentalaren koordinatuetan kokatuz batez ere. Azpeitiko antzerki jardunaldietan estreinatu zen; aretoaren ezaugarri tekniko eskasak kontra bazituzten ere gogotsu atera ziren zazpi aktoreak oholtzara. Formatu txikiko bertsioa eskainia zuten egun batzuk lehenago herrian bertan.

Imanol Muruaren eta Jesus Egi-gurenen liburuak izan dituzte oinarri, besteak beste. Asko da, beraz, denbora laburrean kontatu beharrekoa, publikoari laburtu beharreko kronologia eta entziklopediarik gabeko historia. Apenas egongo da sentimendurako eta emoziorako tarterik, ez bada norberak eman lezakeena; hain dira ugariak herri honek burutik aburura izan dituen bizipen pertsonal eta kolektiboak.

Aktore batzuen azalean berehala ezagutuko ditugu etxeko telebista baino ikusiagoak ditugun politikari euskaldunak, hainbat elementuk lagunduta: proiektioetan irakurri beharreko testuek eta albistegi

zatiek informazio ugari helaraziko dute, Mursegoren musikak eta bes-telako soinuek eta audioek ekarpen handia egingo diote akzioari. Ikus-entzunezko dokumental bat ikus-tearen gisakoa izan daiteke antzez-lana, eta ikuslea ere era horretan posizionatu beharko da agian: 'urruntzearen' teknika gogoan, ari-keta arrazionala egin beharko du, jasotako informazioaren aurrean posizio bat hartuta.

Ur handitan sartu dira *Su txikian*-eko egileak, gaiari eta antzerki motari dagokionez. Zentzu horretan eztaba daezina da agertutako ausardia, eta Galder Perez zuzendariak proiektua aurrera ateratzeko erakutsi duen kemena. Ondo datorkigu gogoratzeko antzerki mota ezberdinak behar ditugula, Euskal Herriaren historiari erreparatuta teatro dokumentalak ere leku bat izan lezakeela. Hortik aurrera ikusleonek esku dago iritzia edukitzea eta ematea, antzerkiari buruz, agertutako edukiei buruz. Teatroaren itsaso honetan behar ditugu marinelak, baina ikusleoi dagokigu igeri egitea. Edo itotzea. Edo arrain bilakatzea. ■

Oier Guillan

